



DANI BLANCO

**Amaia
Lasa
Alegria**



IDAZLEA

Aldaketa da gure aukera

MAFALDAK, Quino argentinarraren komikigileak sortutako pertsonaia hunkigarri hark, mundu bolari begira zegoelarik maiz esaten zuen: “Zer gaizki zabiltzan!”. Berrogeita zortzi urte igaro dira ordutik hona, ezin esan, hala ere, egoera asko hobetu denik.

Gure munduari begirada zabal, luze, lasai bat botatzen badiogu zein egoera korapilatsuetan eta krudeletan murgildurik gauden ohartzen gara, emazteen ikuspuntutik ikusten badugu bereziki.

Hamazazpi urte igaro diren arren, ezin ahaztu XX. mendearen bukaeran Europan gertatu zen Balkanetako gerra. Konfliktu mintsu hartan andreak –musulmanak gehienak– bahitu eta bortxatzen zituzten etsaia umiliatzeko, objektu bezala erabiliak izan ziren gizonak zigortzeko, hala bigarren sexua izaten jarraitzen dugula erakutsiz.

Desberdintasun biologikoak zentzurik gabeko hierarkia sortu du bi sexuen artean, gizonezkoei lehentasuna emanaz. Guzti honek ez garamatza biktimismo batean sartzeraz. Ez dira kexu antzuak, gure zapalketaren eta bazterketaren arrazoi sakonak baizik

Komunikabideek gezur borobilak esan edo idazten dituzte gainera, politikarien gaizkidetasunarekin noski!

Afganistango eraso hasi zenean, orain dela hamaika urte, Amerikako Estatu Batuetako Gobernuak adierazitako aitazkietako bat zen, bertako emazteak burkatik askatzeko edo zapalduz zeuzkaten gizonengandik salbatzera joan zirela. Saminez betetako, amaierarik gabeko urte odoltsuak igaro dira, orain biztanle guztiak, haurrak eta gizonak barne, okerrago bizi dira, nahigabe hauek nahiko ez balira, joan zen hilaren erdi aldera OTANgo soldaduek zortzi emakume erail zituzten bonbardaketa batean, kasualitatea dela esateak ez du sinesgarritasunik.

Emakumeen aurkako bortizkeria komunikabideek egunero dakarten berri zaharra da, herri musulmanen emazteen egoera tamalgarria soilik erakusten digutela, baina txunditurik geratzen gara, Kanada, Australia, Israel, Amerikako Estatu Batuak... bezalako herri “aurreratuetan” ere gertatzen dela jakiten dugunean, ez gara ohartzen murgildurik gauden sistema sozio-ekonomiko honen ondorio bat dela emakumeak egunero jasaten dugun bortizkeria sexual, fisiko edo psikologikoa. Edozein taldetan suertatzen da gainera, arraza, erlijio, baldintza sozioekonomiko, hezkuntza maila edo adinak axola ez duelarik.

Desberdintasun biologikoak zentzurik gabeko hierarkia sortu du bi sexuen artean, gizonezkoei lehentasuna emanaz. Guzti honek ez garamatza biktimismo batean sartzeraz. Ez dira kexu antzuak, gure zapalketaren eta bazterketaren arrazoi sakonak baizik. Ez gara ezer egin gabe geratzen, hamaika mila forma eman dizkiogu gure bizitzari, gure egoeraren aurrean altxatu gara behin eta berriro bide berriak eraikitzen.

Hala ere, norbanako borroka espiritualetan izan dira batik bat. Iraultza pertsonal horiek alde batera utzi gabe, orain bi aukera geratzen zaizkigu, besteak beste: gure indar fisikoa garatzea alde batetik, gizarteratzea bestetik; errotik, hondo sakonetik guztia iraultzeko.

Idea zaharrak iraunaraztea aldatzea baino errazagoa da. Bide berriak jorratzea, eraldaketak egitea ez dira inoiz errazak izan. Teoria bat gauzatu arte ez dugu jakiten ideia horrek zenbateraino balio duen, ideien bat mamtzen dihardugunean modu egokian bideratzen dugun ez dugu jakingo batzuetan, ibiltzeke dauden ildoak asmatzea besterik ez zaigu geratzen.

Gure sozietate hau, teknologia aldetik hartzen badugu, Leonardo da Vincik inoiz amestu ez zuen gizartea dela konaturatuko gara. Orain pertsonen arteko harremanak eraldatzea geratzen zaigu zapaltzaileak eta zapalduak desagertu arte. ■

